

GURE ARRANTZALEAK

«Itxasoan laño dago,
Baiona'ko barraraino;
nik zu zaitut maitiago
arrantxuak ura baiño».

I

Goiz-izarpean

Illik ete bizia? Ala loak artu?
Bide-kaleetan, ene!, zein ixil aundia...
Ortzipean dingiliz illargia laru,
etxe gorriak zaintzen aren ñir-izpia:
portu inguru dantzan Itzalaz Argia...

Asper barik jruten Aldi'ren mataza
eleiz-torre zutian jcale bakarti:
ixilla dardartuz, lau jo ditu geldika...
Urak bitartean ots, aizeak, intziri:
itxas-uria yaku bat-batez itzarri.

Batelak diardue zabuka kaiean,
aur antzera ur lepoan, oi!, geldi eziñak;
ta zenbat soka biur, —or-emen nastean,
zidar-iruntzez egin-ezkataz josiak,
illargitxo sorgiñak maitez kiskurruak.

Begira orain, portu bete arrantzale;
ara ta ona zoli, nasian dabilta,
errez zenbatu ezin-ala zar ta gazte.
Goizetik lanerako gertu dan erlauntza
kaiak dirudi. Ango jardun-bear latza!

Gizonen laguntzaille, begira andrak be;
buruan itxas tresnak dakarrez biribil...
Taupa gozoz biotzak poz jasaren mende,
kai aldean bai dala naikorik iskanbil,
ta tretzak atontzean, amaika katramil.

Azkenez, oro gertu: sare, amu, jaki;
ta bakoitzak arturik yagokon lekua,
igitzen asi dira ontzi txiki ta aundi...
Senarrak agurtuaz, andrak etxerantza.
Ixil aundia gero. Goiz-nabar zerua.

II

Eguneroko arloa

Neskatx lirain eduko, itxaso sotil.
Aren urdiña urratuz, badoaz ontziak,
lema eragiñari erantzunik bipil;
baita ontzietan arrantzu-zaleak,
gu janaritzearren urez dabiltzanak.

Baseleiza txikia, nasa okertzean;
Karmen'go Ama bertan, irribar ezitan.
Arrantzale ausartak, andik joatean,
goi-otoitza oi dabe loretu aotan,
babesa billaturik irudi zar atan.

Oi, arrantzale trebe, itxastar maratza,
ez aitzu, ez ezetsi leenen oitura zar
Siñis-begia ernai; Gr dozu laguntza:
bidez gabiltzanontzat bera baita artizar,
goi-laguntasunezko argiz beti dardar.

Izar orren zainpean, arraun beso zaintsu,
jardunaldi luzeetan olatu bizkarrez;
kresal aizea arnaska, nainun ta gogotsu;
azaletik baltz arren eguzki-ekitez,
kemen-sua darion bularra mamiñez.

Au bai ikuskizun eder! Eguzkia bolbol:
aritxo mee lenengoz; gero, zirt betea.
Goiak dau bea maite. Ta zenbat zain-odol!
Itxasoan bai pin-pin goiz urratzea!
Garretan ura, bost kolorezko zapia.

Ta so arrantzaleak, gizonki, lanean:
amuak eraturik, ur barrura tretzak,..
Apar zuria, noizka, gezal urdiñean...
Zelan kanta, itxas-gizon, ire neke miñak?
Arraiñak ba-ditu, izan be, bere izerdiak.

III

Ekaitza

Gezi zorrotzez dago eguzki txakilla;
baretsu ura, kulunka neurtuan ontziak;
kaio saila gaiñ, zear-egan, zer jan billa:
kaio ta ur adiskide min arrantzaliak,
etengabeko zora-ekzutuz orniak.

Odei zuria, batez, zeru apaingarri.
Añesa lez eda da. Zer ete? Ekaitza?
Kaioak garrasiz, zer diñotse alkarri?
Zantzu txar onek nori musin ez biotza?
Arrantzale kementsu, ¡re zori gaitza!

Murrus itxas erraiak, bai'litzan zezena:
gezal-zintzur miñari ler-bitsa darío...
Tximistak argi; orro trumoi'k goi barrena;
olatuak ankerki alkarri eraso.
Opari gosez dogu oraingoz itxaso.

Ta ekaitzaren mende, ai!, gure itxastarrak.
Goiko Jaun: esna, otoi, zure al aundia!
Morroi ez dozuz zar ta gazte diran-diranak?
Bai, lagun zakioez, Jaungoiko maitea;
bestela, noski, eurena da eriotzea.

Zurki arraun dagie, ekaitzari igesi;
izu dira portuko arkaitz muturrean;
lenago be sarritan an bai ditu iruntsi
ontzi ta gizonik lar ubil asarrean,
zeruraiño eltzen diran arkaitzen artean.

Ontziak arriskuan ikusi ezkeró,
—aren alde Jaunari otoi egiteko—
eleiz-torre zarrean kanpaiak dei gozo...
Ta otoi-beso indarrez itxirik itxaso,
barriz alkar mosutu seme ta guraso.

IV

Eskintza

Pertol, arraun, amu ta sarek esitua
iduritzen zaitudan itxastar zaintsua:
biotzetik deskintzut opari autua;
azalez pirtxil arren, maitez oretua,
gal-zorian pozbide zuri opatua.

Poz-jario zakustaz urez egunero,
arraun kirten zuzena eskupean tinko.
Ekiñal indartsuan, oi zelako beso!
Iñoiz be utsik gabe, eguzki naiz laiño,
jarraitu orrelantxe, itxastar begiko.

Arraintxoak maite dau uraren oztiña;
zuk, barriz, maite dozuz ura ta laiñoa,
baiña maiteago urez dabillen arraiña.
Ta nik gogoz maite: zu, ura ta arraintxoa.
Beioa gaur irurontzat nire eskintxoa.